

Dokumentu mota: Legez Besteko Proposamena

Nori zuzendua: Osasun Batzordea

Izapidetze organoa: Legebiltzarreko Mahaia

Proposatzailea: Rebeka Ubera

Talde parlamentarioa: EH Bildu

Ekimenaren izenburua: Barakaldoko San Vicente eta Rontegiko osasun etxeak indartzeari buruzkoa.

ZIOA

Rontegi eta San Vicente anbulatorioetako arazoak ez dira ez-ohikoak. Aitzitik, lehen arreta pairatzen ari den egoeraren isla dira. Beraz, Rontegi eta San Vicenteko anbulatorioetan ere, gainerako osasun etxeetara begirako osasun politika berberak hartu beharko lirateke. Baina, batez ere, osasun politika aldatu beharra dago, egiturazko gabeziei erantzuteko politikak abian jarriaz. Zeren eta osasun mediku gabezia ez da kasualitatearen ondorioa, baizik eta urteetan aplikaturiko politiken ondorioa; urteetan indarrean egon den kontratazio zehatz baten ondorio, planifikazio gabeziaren ondorio eta abar.

EH Bilduk urteak daramatza, pandemia aurretik, Osakidetzan zetorren jubilazio kopuru altuari erantzuteko planifikazioa eskatzen; kontratazio eredu aldaketa eskatzen; EPE eredu aldaketa eskatzen; behin-behinekotasunari aurre egiteko neurriak eskatuz, eta abar. Baina, egiari zor, orain arte legebiltzarrean proposaturiko hainbat neurri ez dira onartuak izan. Onartuak izan ez diren bezala osasun profesionalen aldarrikapenak, sindikatuen aldarrikapenak. Ikustea besterik ez dago zein den Osakidetzako Mahai Sektorialaren egoera.

Guzti horri gehitu behar diogu biztanleriaren eboluzioa, zahartzea eta eskualde zein herri, hiri bakoitzak izan ditzakeen ezaugarriak, bai eta tokian tokiko egoerei erantzuteko neurri espezifikoak.

Halaber, orain arte egin izan diren pilotajeez gain, beste batzuek ere sustatu daitezke, bestelako neurri orokorrak hartzearekin batera.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo proposamena egiten dugu.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1.-Legebiltzarrak Osasun Sailari eskatzen dio, lehen arreta indartzeko xedearekin, Barakaldoko San Vicente eta Rontegiko osasun etxeetan proiektu pilotu bat abian jar dezala, non besteak beste ondorengo neurriak ezarriko eta ebaluatuko diren:

1.1.-Ekipo multidistiplinarrak osatzea, gutxienez ondoko profilekin: familia medikua, gizarte langilea, erizaina, erizain laguntzailea, administratiboa, fisioterapeuta eta psikologoa. Halaber, osasun etxean bertan, adinekoen jarraipenerako batzorde berezia eratzea, barne-medikuntza eta geriatra espezialitateko profesionalekin, zein beharrezkoak ikusten diren espezialitateekin.

1.2.-Ekipo multidistiplinar bakoitzak bere agenda eta ordutegia autonomiaz kudeatzea. Osakidetzako zuzendaritzak eta ESI-ko gerentziak anbulatorioan ezarriko dituzten neurriak ahalbidetuz eta neurri horiek hartzeko erabaki ahalmena emanez.

1.3.-Kontratu egonkorak eskaintzea, formazio, ikerketa eta osasun etxean ekipo multidistiplinar bakoitzak erabakiko duen proiektu bati lotuta.

1.4.-Erizain, erizain laguntzaile eta administratibo langile kopurua areagotzea, ekipo multidistiplinarrak indartzeko; kronikoen jarraipenerako; etxez-etxeko zerbitzurako; komunitatean –ikastetxeetan, adinekoen egoitza zein zentroetan, auzoetan- osasun sustapenerako.

1.5.-Herritarren ikuspegia kontutan hartzeko eta herritarren kezak, irizpideak aintzat hartzeaz gain, herritarrak ahalduz hartzeko herritarrekin komunikaziorako eta parte-hartzerako bide desberdinak irekitzea, osasun etxe bertatik.

2.-Legebiltzarrak konpromisoa hartzen du Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 72.5 artikulua indarrean sartzeko irakurketa bakarreko legea onartzea. Halaber, kanpotik etorriko diren zein EAEn bizi diren baina euskara ez dakiten osasun profesionalei euskara ikasteko bideak erraztea.

3.-Legebiltzarrak Osasun Sailari eskatzen dio adierazpen bat egin dezala non lehen arreta erakargarri egiteko konpromisoak jasoko diren, horrela BAME/MIR-ko plaza aukeratu behar duten ikasleek lehen arretaren aldeko hautua egitea errazteko.

Euskal Herrian, 2023ko martxoak 21ean

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaile-ordea

Rebeka Ubera Aranzeta